

## **BAZTAN-BIDASOAKO HIZKEREN AZTERKETA DIALEKTOLOGIKOA**

**Tesiaren egilea:** Eduardo Zelaieta Anta

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea

**Saila:** Hizkuntzalaritza eta euskal ikasketak

**Tesi-zuzendaria:** Iñaki Kamino Lertxundi

**Tesiaren laburpena:**

Auza (1305 m) mendiaren mazelan, Xorroxin izeneko alderdian sortzen da Baztan ibaia, Erratzun, Izpegi inguruan. Izen horrekin ezagutzen da Bertizaranara iritsi bitartean, Oieregin berean Bidasoa izena hartzen baitu; bai eta izen horrekin jarraitu Txingudiko Badian hiltzen den arte ere. Guztira 69 kilometroko bidea du; hauetako 59 Nafarroan eta 10 Gipuzkoaren eta Lapurdiren artean.

Hain zuzen ere, ibai honek Nafarroan ureztatzen dituen bazterretan barrena murgildu gara, bertako hizkerak nondik norako mugak dituzten erakusteko asmoz. Dialektologian ezaguna denez, anitz dira eremu bateko mintzoan eragiten duten faktoreak: demografia, orografia-hidrografia-geografia, harreman sozio-ekonomikoak eta egoera soziolinguistikoa, bertzeak bertze. Erran nahi baita, solasa aztertzeo, solas hori egiten duen jendea ere aztertu beharko dela, bai eta jende multzo hori biltzen duen eremua ere. Azken batean, mintzoaz haratago, mintzo hori duen jendeaz ari gara.

Tesiaren ildo nagusiak bat etorri nahi izan du azken garaiko Euskal Dialektologiaren ikerkuntza-bideekin. Honela, ikerkuntza-bide hauen arabera, hizkuntzaren dinamika espaziala aintzat hartzen da; errealizazioen banaketaren eta hedaduraren azterketak, alegia. Hizkuntza-espazioaren egitura aztertzeo, hizkuntza-aldaerek geografian barrena duten hedadura ulertzeko, biderik egokiena dialektologia kontrastiboa da. Hortaz, hizkuntza-geografia izan da gure metodologiaren ardatza: hizkuntzaren tasunei eman diegu lehentasuna eta honelako ezaugarriak aztertzen —(geo)linguistikoki interpretatzen— aritu gara, isoglosa nagusiak non kokatzen diren ikusteko. Geolinguistikari esker, azter-eremuaren eta auzoaren ikuspegi orokorraren berri izan dugu: ezaugarrien geografia-hedadura ikusirik, lerro nagusiak nora begira dauden jabetzeko moduan egon gara.

Datuak lortzeko metodologiari dagokionez, aipatu behar da Baztan-Bidasoan 89 berriemaile izan ditugula eta bertze 21 laguntzaile inguruan. Guzira, beraz, 120 laguneko hizkuntza-datuak erdietsi ditugu grabazioen nahiz galdetegi bidez. Zuzeneko informazio honetaz landara, Euskaltzaindiaren Euskal Hizkeren Herriko Atlasera, Nafarroako Gobernuaren Fonotekara eta Baztan-Bidasoako ahozko bildumetara jo dugu. Halaber, Euskal Dialektologiak azken urteotan emandako bibliografia oparoa irakurri dugu.

Ondorio nagusietan aipatu behar da bereizi direla, alde batetik, Baztan aldean aditzen den solasa, eta bertze aldetik, berriz, Bidasoa alderdikoa (Bertizarana, Malerreka, Sunbilla eta Bortzerriak). Hizkeren sailkapenari dagokionez, bi multzo bereizten ditugu, hortaz, nahiz eta bi hizkera hauek egungo euskara nafarraren barrenean dauden. Baztan-Bidasoa: bi izen, bi izan, euskara nafarraren baitan.

Baztan eta Bidasoaldea linguistikoki bereizten diren gunea Oronoz-Mugairi da (muga-hiri), bertatik ekialdera Baztango hizkera baitugu eta bertatik mendebalera, berriz, Bidasoaldea.

Bidasoaldeko euskaraz den bezainbatean, Bortzerriak eta Malerreka ez datoz beti bat. Zenbaitetan, Bortzerriek ondoko Lapurdirekin nahiz Gipuzkoarekin bat egiten dute, eta Malerrekek, berriz, ondoko hizkera nafarrekin bat egiten du usuago. Halaber, Baztanen, Baztangoiza Ipar Euskal Herritik nahiz Urdazubi-Zugarramurditik hurbilago dago, eta Baztango Basaburua, ordea, Oronoztik nahiz Ultzamatik hurbilago.

# ERRETIRATU PROFIL BERRIAREKIN ERLAZIONATUTAKO FAKTORE SOZIO-DEMOGRAFIKO ETA PSIKOSOZIALAK

**Tesiaren egilea:** Izarne Lizaso Elgarresta

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea

**Saila:** Oinarrizko Psikologia Prozesuak eta haren Garapena

**Tesi-zuzendaria:** Luixa Reizabal Arruabarrena eta Manuel Sanchez De Miguel

**Tesiaren laburpena:**

Ikerketa-tesi hau garapen psikosozialaren eremuan kokatzen da. Hain zuzen ere, hirugarren adineko garapenaren ikerketa arloaren baitan.

Orain arte, erretiroari egokitzeko prozesua azaltzeko orduan, bereziki bi teoria psikosozial erabiltzen direla aipatu da: batetik, Jardutearen teoria (Havighurst, 1961), eta bestetik, Desloturaren teoria (Cumming eta Henry, 1961). Hala ere, azken hamarkadetako aldaketa sozio-historikoak kontuan hartuta, egungo erretiratuarekin erlazionatutako ezaugarriak aldatzen ari direla azpimarratzen da; ondorioz, erretiratu profil berriaren inguruan zenbait autorek (Canes eta García, 1989; Bazo, 1992, 1996, 2000; De Zayas, 1996; Meléndez, 1996; Moen, 2000; Kim eta Moen, 2001) egindako ekarpenak ere aintzat hartu dira.

Ikuspuntu psikosozial batetik, ikerketaren helburu nagusia egun erretiratu profil berria garatzen hasi den aztertzea izan da. Horrez gain, erretiratu profil berriarekin erlazionatuta egon daitezkeen hainbat ezaugarriren arteko erlazioa aztertzea, eta, erretiratu profil berriaren ezaugarri sozio-demografikoak eta psikosozialak deskribatzea. Horretarako, analisi deskriptiboa, diferentziala eta aldagai anitzeko analisia erabili dira. Izan ere, berresteko analisi faktorialaren bidez, azpi-populazio zehatz batean konstruktuko teoriko berri baten existentzia aztertu nahi da.

Guztira, Gipuzkoa lurraldeko 161 partehartzailek osatu zuten lagina: 80 emakume (%49,7) eta 81 gizon (%50,3). Elkarrizketatuen batez besteko adina 66 urte (DT = 6,35) izan zen. Elkarrizketaren hizkuntzari dagokionez, 135 (%83,85) gaztelaniaz egin ziren, 26 (%16,15), berriz, euskaraz. Ikerlan honetan erabili den laginketa intzidentala izan da.

Planteatutako helburuei heldu ahal izateko, partehartzaile guztiek galde-sorta berdinei erantzun zieten, aldagai sozio-ekonomikoak, sozio-demografikoak, osasun psikologikoa, jarduerak eta antzeko gaien inguruan, besteak beste: SPMSQ (Pfeiffer, 1975), "Ad Hoc" elkarrizketa; Aisialdiko jardueren buruzko galde-sorta laburra; GADS (Goldberg et al.); PGC (Lawton, 1975) Autokontzeptuaren bi dimentsioak neurtzeko galdesorta; COOP-WONCA (Nelson et al.).

Emitza sozio-demografikoei dagokienez, laginaren gehiengoa diru-sarreren batez-bestekoaren gaintik kokatzen da, erretiro-adin ofiziala baino lehen erretiratzen da, oinarrizko ikasketak ditu eta bere etxean bizi da. Emitza psiko-sozialei dagokienez, berriz, partehartzaileek osasun egoera ona dute; hau da, ez dute gaixotasun fisiko larririk eta beren osasun-egoera positiboki hautematen dute. Horrez gain, depresio eta antsietate maila baxua dute eta bizi-asebeteta sentitzen dira. Gainera, maiz izaten dituzte erlazio sozialak eta erlazio horiekin asebeteta sentitzen dira. Azkenik, autokontzeptu positibo altua eta autokontzeptu negatibo baxua adierazten dute.

Ikerketa-tesi hau menpekotasunik ez duten adineko pertsonen hurbilketarako baliagarria dela uste dugu. Etorkizuneko ikerketak, laginaren tamaina handiagoarekin, hainbat testuinguru kulturaletako erretiratuen arteko konparaketak egitera bideratu daitezke.

# JOANES ETXEBERRI SARAKOAREN SAIAKERA-LANAK

## ETA LATINA IKASTEKO GRAMATIKA:

### EDIZIOA ETA AZTERKETA

**Tesiaren egilea:** Gidor Bilbao Telletxea

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea

**Saila:** Ikasketa Klasikoak

**Tesi-zuzendaria:** Joaquín Gorrochategui Churruca

**Tesiaren laburpena:**

Joanes Etxeberri Sarakoaren idazlan ezagun guztien testua finkatu gura izan dugu doktore-tesi honetan, hala euskarazkoa nola latinezkoa, dena irizpide beretsuen arabera osaturiko edizio filologiko bakar batean bildurik.

Corpusa eskuizkribu bakar batean eta edizio bakar batean oinarritua denez (alegia, *Escuararen hatsapenac* eta *Escual Herriari eta escualdun guztiei escuarazco hatsapenac latin ikhasteco* lanen edizioa Zarauzko Eskuizkribua deituriko autografoan oinarritua, eta *Lau-urdira gomendiozco carta edo guthunarena* 1718ko Baionako edizioan oinarritua), edizio kontserbadorea egin behar izan da. Edizioari dagozkion erabakiak hartzeko behar izan den heinean egin da hizkuntzen azterketa.

Bestalde, testua bere osotasunean ulertzeko helburuarekin, eta lana Europako garai hartako paradigmetan kokatzearen, goitik behera berrikusi da 1907an Julio Urkixo euskalariak Etxeberri Sarakoari buruz idatzitakoa. Ikasketa-garaia argitzen saiatu gara bereziki, hain zuzen ikasketa-aldi horren hasieran (*Infima classis Grammaticae*) latina ikasteko pentsatua baita *Escuarazco hatsapenac latin ikhasteco* eskuliburua.

Gure edizioaren corpusaren zatirik handiena helarazi digun Zarauzko Eskuizkribuaren datazioa zehazten ahalegindu gara. Zalantzarik gabe, 1722az geroztik ere eskuizkribua biribiltzen ziharduen, data hori baita eskuizkribuko zenbait lerroentzat ezarri dugun *post quem* data. Eskuizkribuaren paperean aztertu ditugun filigranek ez dute ezer gure datazioaren kontrakorik erakusten.

Erakutsi dugu proiektu hirukoitza osatzen dutela prosa-lanak, gramatika-lanak eta hiztegiak, hiru helbururen zerbitzuan:

- Munduko hizkuntzak («cembait hitzcuntçaren parte bederen») ikasi behar dituzten euskaldunek lehenbizi latina ikas dezaten tresna bat eskaintzea, hots, latina euskaraz eta euskaratik abiatuta ikasteko asmatutako eskuliburua.
- Euskaraz idaztera bultzatzea, eta horretarako laguntza eskaintzea.
- Euskarak beste hizkuntzek bezainbeste balio duela frogatzea.

*Escuararen hatsapenac* prosa-lanari dagokionean, frogatu dugu Aristotelesek *Analytica posteriora* lanean azaldu eta Tomas Aquinokoak *Summa Theologiae*-n erabiliriko lau galderen arrazoibide eta frogabide zientifiko eta logikoak egituratzen duela liburuttoaren erdia inguru; horrek esan nahi du euskararen balioa frogatu gura duen lanean, metodo zientifikoaren lanabesak erabili dituela, pentsaturik ondorio zientifikoen bermea izango dela frogatu gura duenaren bermea, hots, euskararen balioa egia eztaba daezin gisa frogaturik utziko duela, XVI-XVII. mendeetako idazleek beste hizkuntza batzuekin egin zuten bezala.

Bestalde, proposatu dugu noizbait aparteko liburua osatu nahi izan zuela Etxeberri *Escuararen hatsapenac*-ekin (eta ez dela, beraz, gramatika-lanaren hitzaurre soila), eta hor bildu zituela ordura arte idatziak zituen prosa-lanak, esan nahi baita euskararen balioa frogatzeko idatziriko saioa (irakurtzaileari zuzenduriko epilogo gisakoa barne) eta Euskal Herriko gazteriarri zuzenduriko letretarako deia. Erretorikaren ikuspegitik, *laus Cantabriae* modukoa izango litzateke lehenengoa, eta *laus litterarum* bigarrena, Espainian XV. eta XVI. mendeetan landuriko tradizioen ildokoak.

Prosa-lanaren idazte-prozesuan erabilitako tresnak eta ereduak ere aztertu ditugu, eta erakutsi gura izan dugu baieztapen erretorikoa baino zerbait gehiago dela Etxeberriren «eztut jeusic neure baitharic ekharri, ez eta ere autoretan causitcen ezten gauçaric isquiribatu», hala prosa-lana idaztean nola gramatika-lana taxutzean benetan erabili baitzituen beste autore batzuen liburuak eta bildumak.

Uste dugu frogatuta geratu dela Etxeberriren mahaian leku berezia izan zuela Bernardo Aldreteren *Del origen y principio de la lengua castellana o romance que oi se usa en España* liburuak, *Enciclopedia rinascimentali* deiturikoen ondoan, Covarrubiasenaren moduko hiztegien alboan, *Biblioteca Veterum Patrum* edo antzeko bildumaren batekin, Axular edo Oihenart bezalako autoreekin batera, prosa-lanerako *inventio*-a errazteko tresna gisa.

Gramatika-lana taxutzeko ere ez zen Sarako medikua hutsetik hasi. Esan liteke *rudimenta* motako oinarrizko gramatika-lan praktikoen artean lerratu behar dela Etxeberriren *Escuarazco hatsapenac latin ikhasteco*, eta, ezagutzen ditugun guztien artean, Hannibal Codreten *De primis Latinae grammatices rudimentis libellus* (1566) delakoaren Frantziako edizio elebidunen bat (latina-frantsesa) dela Etxeberrirenaren eredu zuzena.

Badakigu, bestalde, sarrerak euskaraz eta ordainak latinez, gaztelaniaz eta frantsesez ematen zituen hiztegia egin zuela Sarako medikuak, baina ez da hiztegi horren alerik ezagutzen. Luzaroan sinetsi nahi izan da Sbarbi-Urkixo Eskuizkribua izenarekin ezagutzen den hiztegi laukoitza Sarako Etxeberri idatzia zela, baina gure lanean erakutsi dugunarekin 1826ra arte atzeratu dugu hiztegi horren *post quem* data, frogatutzat eman baitugu Fleury Lécuse irakasleak 1826an argitaraturiko *Manuel de la langue basque* liburuan den hiztegi hitzak modu sistematikoan sartu direla Sbarbi-Urkixo Eskuizkribuan, zalantzarik gabe Lécusenetik hartuta.